# PR -BI 165

## Itsaso aldera ibilbidea.

## Ruta hacia el mar.




| Km | | |
|---|---|---|
| 6,5 | 165m | 2h |

1 2 2 2




Ogoñoko haitza Kantauri itsasoaren parean dago, eta gure kostaldeko talaiarik ederrenetako bat da. Bide honek bere tontorrera hurbiltzen gaitu.




*El peñón de Ogoño se alza frente al Cantábrico y se convierte en una de las atalayas costeras más bellas de nuestra costa. Este sendero nos acerca a su cima.*



**Ogoñotik**
***Desde Ogoño***



**Bidean**
***En el camino***



**Laga**

Artadian ibiltzea, Ogoñoko haitzak eskaintzen dizkigun ikuspegi bikainez gozatzea eta Elantxobeko eta Ibarrangeluko herriak ezagutzea dira ibilbide honek eskaintzen dizkigun ekintza erakargarrietako batzuk.

Ibarrangelutik abiatuta, ibilbidea baserrien artean doa Bermokizen dagoen Elantxobeko hilerriraino, non ibilbidea bitan banatzen den. Ogoñorako igoera eskuineko bidetik egingo dugu, gure kostaldeko ikuspegi ederrez gozatzen dugun bitartean. Auzobidea utzi eta basoa gurutzatuz Ogoñoko talaiaraino igotzen den bidezidorrean barrena joango gara. Bai talaian bai Ogoñoko tontorrean erortzeko arriskua dago eta haizeak gogor jotzen du; beraz, kontuz ibiltzea gomendatzen dugu, batez ere umeekin joanez gero.

Talaiaren ikuspegiaz gozatu ondoren, Bermokizera itzuliko gara eskuineko bidezidorretik, Elantxobeko hilerrira, eta handik Ibarrangelura, bide beretik.

Caminar por el encinar, disfrutar de las espléndidas vistas que nos ofrece el peñón de Ogoño y descubrir los pueblos de Elantxobe e Ibarrangelu son algunos de los atractivos que nos ofrece este recorrido.

Partiendo de Ibarrangelu el sendero discurre entre caseríos hasta el cementerio de Elantxobe, en Bermokiz, donde el itinerario se bifurca. Realizaremos la ascensión a Ogoño por el camino de la derecha, mientras disfrutamos de las bellas vistas de nuestra costa. Abandonamos el camino vecinal para adentrarnos por el sendero que cruzando el bosque asciende hasta la atalaya de Ogoño. Tanto la atalaya como la cima de Ogoño son lugares expuestos a fuertes pendientes como a la fuerza del viento, por lo que recomendamos se actúe con precaución, sobre todo en el caso de acudir con menores.

Tras disfrutar de las vistas de la atalaya regresaremos a Bermokiz por el sendero de la derecha, que va a parar al cementerio de Elantxobe, desde donde regresaremos a Ibarrangelu por el mismo camino.

plana

## eta gero...
## y después...

Zatoz Elantxobeko herri bitxira, ibili kaleetan eta portuko kai-muturrean barrena. Gozatu tabernetako terrazez eta jatetxeetako arrain freskoaz.

Ibarrangelu ere bisitatu. Bertan, San Andres eliza ageri da, Euskal Kapera Sixtinoa deritzona, polikromatutako zur landuzko bere ganga bikainari esker. Ezagutu Laida eta Lagako hondartzak ere. Oinezkoen pasealeku batek Ibarrangelu eta Laga hondartza lotzen ditu.





Acércate el pintoresco pueblo de Elantxobe, recorre sus calles y pasea por los rompeolas del puerto. Disfruta de las terrazas de sus bares y del pescado fresco de sus restaurantes.

No dejes de visitar Ibarrangelu. Allí se alza la iglesia de San Andrés, conocida como la Capilla Sixtina Vasca gracias a su extraordinaria bóveda de madera tallada policromada. Descubre también las cercanas playas de Laida y Laga. Un paseo peatonal une Ibarrangelu con la playa de Laga.